**Amorebieta-Etxanoko Udala**
**Bizkaia**

# ZERBITZUAK EMAN EDO ADMINISTRAZIO JARDUERAK BURUTZEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

## 2009

## I. XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua.-**

Udal honek, Lurraldeko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasok, eta haren barruan geratzen dira jasota.

**artikulua.-**

Ordenantza hau Udalerriaren eremu osoan aplikatuko da.

## II. ZERGAGAIA

**3. artikulua.-**

Udalaren aldetik zerbitzu bat eskaintzeak edo jarduera bat burutzeak eratzen du zergagaia, dela eskatua izan delako, dela partikularren egintza edo hutsegiteen ondorioz zeharka probokatu delako.

## III. SUBJEKTU PASIBOA

**4. artikulua.-**

1.- Honako hauek izango dira zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsonak fisikoak zein juridikoak, eta martxoaren 10eko 2/2005 Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak 34. Artikuluan aipatzen dituen entitateak, zerbitzu edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.

2.- Zergadunen ordezkotzat hartuko dira:

a).- Etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onura edo eragina dakarkieten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasetan: higiezin horien jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

b).- Suhiltzaile zerbitzuengatik, aurrien prebentzioagatik, eraikuntza eta eraispen zerbitzuengatik, salbamendukoengatik eta, orohar, pertsona eta ondasunak babesteko zerbitzuengatik ezarritako tasetan, zerbitzuaren mantenimendua barne, arriskuaren entitate edo sozietate aseguratzaileak.

c).- Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik ezarritako tasetan, obren eraikitzaileak eta kontratistak.

**5. artikulua.-**

Tasak ordaindu behar dituzte:

a).- Partikularren eskariz egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenak.

b).- Partikularrek eskatu ez baina, horien egintza edo hutsegiteengatik, derrigorrezkoak gertatu diren zerbitzu edo jardueren kasuan, egintza edo hutsegite horien leporagarri dituztenak.

**6. artikulua.-**

Ordenantza honetatik eratortzen diren zerga zorretan, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonek ere erantzungo dute.

## IV. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

**7. artikulua.-**

Salbuespenak edo beste hobari fiskal batzuk emateko, ordenantza honetako tarifen eranskineko epigrafe zehatzak dakarrena bete beharko da.

## V. OINARRI EZARGAIA

**8. artikulua.-**

Oinarri ezargarria zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak eratzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

## VI. KUOTA

**9. artikulua.-**

Zerga kuota tarifa, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestelako, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

## VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

**10. artikulua.-**

1.- Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da tasa.

## VIII. LIKIDAZIO-ORDAINKETA

**11. artikulua.-**

Udalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likitaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

## IX. TASEN KUDEAKETA

**12. artikulua.-**

Ordenantza honetan arautzen diren tasak kitatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Lurralde Historikoko Zergen Foru Araua Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

## X. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, bere Eranskina barne, Udalak 1998ko urriaren 28an egindako Osoko Bilkuran onartu zen behin-behingoz. Ondoren, 1999ko urriaren 26an egindako Osoko Bilkuran aldatu zen lehenengoz, 2000eko irailaren 26an egindako Osoko Bilkuran bigarrenez, 2001eko irailaren 27an egindako Osoko Bilkuran hirugarrenez, laugarrenez 2002eko irailaren 24an egindako Osoko Bilkuran, urriaren 15ean egin zen Ezohizko Osoko Bilkuran bosgarrenez, 2004eko urriaren 13an egin zen Ezohizko Osoko Bilkuran seigarrenez, 2005eko urriaren 14an egin zen Ezohizko Osoko Bilkuran zazpigarrenez, 2006ko otsailaren 28an egin zen Ezohizko Osoko Bilkuran zortzigarrenez, 2006ko irailaren 27an egin zen Ohiko Osoko Bilkuran hasiera batean eta behin-betiko 2006ko abenduaren 29an egin zen Ezohiko Osoko Bilkuran bederatzigarrenez, eta

hamargarrenez, 2007ko urriaren 25ean egin zen Ohiko Osoko Bilkuran hasiera batean eta behin-betiko 2007ko abenduaren 14an.

Aldaketa hau 2008ko urriaren 17an egin zen Ezohiko Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean eta behin betiko 2008ko abenduaren 04an. 2009ko urtarrilaren 01ean jarriko da indarrean, eta horrela jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki artean. (BAO 251.zk. 2008, abenduak 31. Asteazkena).

## ERANSKINA (TARIFAK)

### A) EPIGRAFEA: AUTOTAXIEN ETA BESTELAKO ALOKAIRU IBILGAILUEN LIZENTZIAK

1.- Lizentziak ematea eta luzatzea: 4.647,75 €
2.- Lizentziak transmititzeko baimena ematea:
- Ezkontide alargun edo legezko oinordekoen alde: 232,88 €
- Beste inoren alde: 2.323,93 €
3.- Ibilgailuak ordeztea 232,88 €

**Tarifak aplikatzeko arauak:**
Kontzeptu bakoitzari dagokion ordainarazpena kasuen arabera egingo da, honelaxe:
a).- Lizentziak emateko eta luzatzeko edo lizentzia emateko baimena emateagatik: lizentzia ematen den unea, berdin delarik noiz ematen den.
b).- Aurrreko ibilgailuen lizentziak beste ibilgailu batzuei aplikatzeagatik: ibilgailua aldatzeko baimenaren eskaerarekin batera.
Udal lizentziak ezin eskualda daitezke, salbu eta, Automobil Arinen Garraioaren Hiri eta Hiriarteko Zerbitzuen Araudi Nazioala onartzekoa den martxoaren 16ko 763/1979 Errege Dekretuaren 14. Artikuluan ezartzen diren kasuetan.

### B) EPIGRAFEA: HIRIGINTZAKO LIZENTZIAK

1.- Obra handiak eta/edo aurrekontua dutenak:

| | | |
|---|---|---|
| < > | 18.000,01 – 25.000,00 € | 408,80 € |
| < > | 25.000,01 – 50.000,00 € | 511,00 € |
| < > | 50.000,01 – 75.000,00 € | 664,30 € |
| < > | 75.000,01 – 100.000,00 € | 766,50 € |
| > | 100.000,01 € | 0,75% aurrek./ppto. – Gehienez ordaindu beharrekoa /Máximo a pagar: 15.000,00 € |

2.- Obra txikiak, teknikari kualifikatuen eskuhartzerik behar ez dutenak edo/eta 18.080,01 €-tik beherako aurrekontua dutenak: 55,00 €
3.- Kaletik ikusten diren kartel edota iragarkiak jartzea: 111,10 €
4.- Lur-zatiketak egin, eta finkak elkartu eta banatzeko zerbitzuak: Tramitatutako espediente bakoitzeko: 55,00 €
5.- Hondamen deklarazioari buruzko txostenak, alderdiak hala eskaturik: 432,95 €

6.- Lehenengoz erabiltzeko baimena:
- Lehenengo etxebizitza: 55,00 €
- 2-6 etxebizitza: 100,00 €
- 7-20 etxebizitza: 160,00 €
- 20 etxebizitzatik gora: 240,00 €
- Gainontzeko baimenak: 100,00 €

**Tarifak aplikatzeko arauak:**

1.- Tasa itzuli eta bere egitate zergapegarria osatzen duen udal jarduera hasten denean zerga ordaintzeko beharra sortzen da. Honetarako, aipatutako jarduera hasiko da hirigintza-lizentziaren beharrezko eskabidea aurkezten den datan, subjektu pasiboak eskabidea azaltzen badu.

2.- Beharrezko lizentzia lortu gabe obrak hasi edo burutzen direnean, Tasa itzuliko da, hain zuzen ere, delako obrak baimena duen edo ez duen zehaztera daraman udal jarduera hasten denean, obra horien baimena emateko edo eraisteko, baimena edukiko ez balute, izapideak egin ahal dituen espediente administratiboa hastea alde batera.

3.- Behin zerga ordaintzeko beharra sortzen denean, ez du eskatutako lizentzia ukatzearen eraginik izango ez eta esleipenaren eraginik ere, aurkeztutako proiektuaren aldaketa baldintzapean jarri baitu. Behin lizentzia emanda eskatzaileak uko egiteak edo atzera egiteak ere ez du eraginik izango.

4.- Obra-lizentzia ematean interesdunek aurkeztu ahal izango dute, hau eskatu aurretik, kontsulta-eskabidea eraikinei, eraikuntzei edo instalazioei eta gauzatzeko asmoa duten muntaiei buruz eduki ditzakeen zalantzak argitzeko. Muntaien barnean lursailen lerrokadurei edo maldei, eraikitzeko aukerei, egiteko dauden obren izaera bereziari, eta abarrei dagokionean, eta baita hiri-ordenamendu planekin zerikusia duten arauak aplikatzeari dagokionean ere.

5.- Lizentzia-eskabidea egiten den egunean indarrean dagoen ordenantzaren arabera likidatuko dira eskubideak.

Administrazioaren eskubideak bermatzeko eta Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 27. artikuluak xedatzen duenaren arabera, Ordenantza honi dagokion edozein lizentzia-eskabideak, izapideak egiteko onartua izateko, likidatzeko Tasaren aldez aurretiko diru-sarrera egiaztatu beharko du.

Baimenari uko egin edota antzeko izaera duen zerbitzuren bati uko egin edota atzera eginez gero, eskatzaileak eskatu eta eman baino lehen edota erabakia hartu ondoren, kitatu beharreko kopuruak goian adierazitakoaren 100eko 50a izango dira, betiere udal jarduera hori benetan eman bada.

Edozein motatako baimen edota antzeko administrazio egintzatan luzapena edota titulartasunaren transmisioa ematen denean, ofizioz zein alderdiren batek hala eskatuta, hau emateagatik kitatuko litzatekeen tasaren ehuneko 25a sorraraziko da (epigrafe honetan adierazitako tarifen arabera).

## C) EPIGRAFEA: ESTABLEZIMENDUEN IREKITZE LIZENTZIAK

- Sailkatu edo salbuetsitako jarduerak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera.

| Lokalaren azalera - Superficie local | Zenbatekoa €/m2 – Importe €/m2 | |
|---|---|---|
| 50 m2 baino gutxiago<br>Hasta 50 m2 | 452,87 € | Gutxieneko kuota / Cuota mínima |
| 50 eta 150 m2 bitartean<br>Más de 50 hasta 150 m2 | 1,09 €/m2 | Aurreko tartea gainditzen duen m2 bakoitzeko / Por m2 que exceda del tramo anterior |
| 150 eta 250 m2 bitartean<br>Más de 150 hasta 250 m2 | 1,02 €/m2 | Aurreko tartea gainditzen duen m2 bakoitzeko / Por m2 que exceda del tramo anterior |
| 250 eta 500 m2 bitartean<br>Más de 250 hasta 500 m2 | 0,81 €/m2 | Aurreko tartea gainditzen duen m2 bakoitzeko / Por m2 que exceda del tramo anterior |
| 500 eta 1.500 m2 bitartean<br>Más de 500 hasta 1.500 m2 | 0,72 €/m2 | Aurreko tartea gainditzen duen m2 bakoitzeko / Por m2 que exceda del tramo anterior |
| 1.500 eta 3.000 m2 bitartean<br>Más de 1.500 hasta 3.000 m2 | 0,46 €/m2 | Aurreko tartea gainditzen duen m2 bakoitzeko / Por m2 que exceda del tramo anterior |
| 3.000 eta 5.000 m2 bitartean<br>Más de 3.000 hasta 5.000 m2 | 0,37 €/m2 | Aurreko tartea gainditzen duen m2 bakoitzeko / Por m2 que exceda del tramo anterior |
| 5.000 m2 baino gehiago<br>De 5.000 m2 en adelante | 0,27 €/m2 | Aurreko tartea gainditzen duen m2 bakoitzeko / Por m2 que exceda del tramo anterior |

- Banku, Aurrezki Kutxa eta gainontzeko finantza-erakundeek zergak goiko taularen arabera ordaindu behar dituzte eta emaitzazko zenbatekoa txikiagoa bada, gutxieneko kuota 2.223,75 €-koa izango da.

- Sailkatutako jarduerak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera.

| Lokalaren azalera - Superficie local | Zenbatekoa €/m2 – Importe €/m2 | |
|---|---|---|
| 250 m2 baino gutxiago<br>Hasta 250 m2 | 1.358,60 € | Gutxieneko kuota / Cuota mínima |
| 250 eta 500 m2 bitartean<br>Más de 250 hasta 500 m2 | 3,28 €/m2 | Aurreko tartea gainditzen duen m2 bakoitzeko / Por m2 que exceda del tramo anterior |
| 500 eta 1.000 m2 bitartean<br>Más de 500 hasta .000 m2 | 3,05 €/m2 | Aurreko tartea gainditzen duen m2 bakoitzeko / Por m2 que exceda del tramo anterior |
| 1.000 eta 2.500 m2 bitartean<br>Más de 1.000 hasta 2.500 m2 | 2,43 €/m2 | Aurreko tartea gainditzen duen m2 bakoitzeko / Por m2 que exceda del tramo anterior |
| 2.500 eta 5.000 m2 bitartean<br>Más de 2.500 hasta 5.000 m2 | 2,17 €/m2 | Aurreko tartea gainditzen duen m2 bakoitzeko / Por m2 que exceda del tramo anterior |
| 5.000 eta 7.500 m2 bitartean<br>Más de 5.000 hasta 7.500 m2 | 1,37 €/m2 | Aurreko tartea gainditzen duen m2 bakoitzeko / Por m2 que exceda del tramo anterior |
| 7.500 eta 10.000 m2 bitartean<br>Más de 7.500 hasta 10.000 m2 | 1,11 €/m2 | Aurreko tartea gainditzen duen m2 bakoitzeko / Por m2 que exceda del tramo anterior |
| 10.000 m2 baino gehiago<br>De 10.000 m2 en adelante | 0,80 €/m2 | Aurreko tartea gainditzen duen m2 bakoitzeko / Por m2 que exceda del tramo anterior |

**Tarifak aplikatzeko arauak:**

Kontuan izan gabe Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergari lotuak diren ala ez, ordainarazpenaren ondorioetarako honakoxeak jotzen dira lizentzia eskuratu behar duten establezimendu edo lokaltzat:

1).- Lehen instalaziokoak.

2).- Establezimenduen leku-aldaketak.

3).- Establezimenduaren titularitatearen aldaketak.

4).- Jarduera aldaketa, baita horren hedakuntza ere, aipaturiko zerga horren tarifan edo motan gehikuntzak egiten direnean emandakotzat joten dena, salbu aipatutako gehikuntzak tipo zergarriak soilik alda ditzan zerga erreformari dagozkionean.

5).- Establezimenduaren hedapena.

6) "Behin-behineko irekiera-baimena". Jarduera egiten den tokian lanak egiteagatik edo lokala birgaitzeagatik behin-behineko irekiera-lizentzia eskatzen bada, tasaren % 50eko hobaria emango da, eta zenbatekoa deskontatuko da, jatorrizko lokalaren behin betiko lizentzia likidatzen denean, betiere lizentzia hori behin-behineko lizentzia ematen denetik 2 urteko epea baino lehen eskatzen bada.

Administrazio-egintzak edo administrazio-zerbitzuak subjektu pasiboa edo horren ordezkoa ukitzen du –edo aipatu egiten du-, subjektuak berak zuzenean edo zeharka eragin duenean. Subjektuaren egintzak eta ez-egiteak Udala behartzen du ofizioz jarduera edo zerbitzuak ematera, segurtasun, osasungarritasun edo hirigintza antolamendu edo bere eskumenekoa den beste arrazoiak direla eta.

Zergapeko jarduera bat hasten denean dagokion lizentzia eskuratu gabe, tasa udal-jarduera hasten denean sortuko da, irekiera baimendu daitekeen ala ez finkatzeko asmoz.

Tasa sortzen denean, aurkeztutako proiektuaren aldaketak ez du inolaz ere eraginik izango berau ordaintzeko beharrean, ezta lizentzia emandakoan eskatzaileak uko egiten dionean ere.

Irekieraren tasaren ordainketaren egiaztagiria emateak ez du esan nahi ukatzeko ahalmenari ezezkoa ematen dionik Udalak, eta behar denean, Udal Ordenantzak eta beste xedapen legal batzuek ezartzen dituzten arauak betzen ez dituzten establezimenduen lizentzia baliogabetzeari ere.

Iraungitzat joko dira lizentziak emakidari buruzko akordioaren egunetik hasita hiru hilabeteren buruan ez bada zabaltzen lokala edo establezimendua edo titularrak, behin lokala zabalduta, jarduerari utzi eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan baxa ematen badu sei hilabete edo gehiagoko epearen barruan.

Eskatzaileak, lizentzia edo dagokion ebazpena eman baino lehen, uko egiten badio lizentziari edo antzeko zerbitzuei, kitatu beharreko kuotak aurreko zenbakietan ezarritako kuoten 100eko 50 izango dira, baldin eta udal jarduera hasia bada.

Jarduera-espediente berria hasi dela jakinarazten ez duten establezimenduen titular aldaketak: lehenago ezarritako tarifen % 15eko hobaria aplikatuko da, baina zenbateko hori ez da izango 1.000,00 € baino altuagoa.

Lokalen azalera:

Lokalen azaleratzat poligonoaren barruan bildutako guztia hartuko da, metro karratutan eta, kasua balitz, solairu guztienaren baturaz adierazia. Aurreko lerroaldean aurreikusitakoa gorabehera, honako hauek bakarrik hartuko dira azaleratzat:

1. Lehengai edo edozein motatako produktuen gordailu, haize ageriko lehortegi, ur-biltegi eta oro har, jardueraren edozein alderdiri emandako eraiki gabeko eta estali gabeko azaleraren %20a. Edozelan ere, zamatutako jarduerei zuzenean lotuta dauden kirol instalazioen kasuan edota hauei dagokien zerbait denean, azaleraren %5a bakarrik hartuko da kontuan, mailek, maileriek eta kirol ikuskizunetarako publikoa kokatzeko gainerako instalazio iraunkorrek hartutako azaleren kasuan izan ezik. Azken azalera horretarako 100eko 20a konputatuk oda.

2. Bide publikoa saltoki eta antzekoekin atzemanez, sasoiko jardueretako erabilitako azaleraren %40a.

3. Kirol instalazioen eta ikuskizun zinematografikoetarako, antzerki-ikuskizunetarako eta analogoetarako lokalen azalera estaliaren edo eraikinaren 100eko 10, mailek, maileriek, esertokiek eta kirol ikuskizunetarako eta analogoetarako publikoa kokatzeko gainerako instalazio iraunkorrek hartutako azaleraren kasuan izan ezik. Azken azalera horretarako, 100eko 50 konputatuko da.

4. Maila guztietako irakaskuntzara destinatutako lokalen azaleraren %50a, jarduera salbuetsita ez dagoenean.

5. Mota guztietako biltegi eta gordailuen azaleraren %55a.

6. Aparkaleku estalien azaleraren %55a.

Aurreko atalean bildutako arauak aplikatzearen ondorioz gertatzen den metro karratuen kopuru osotik, edonola ere, %5a kenduko da, bao, enpresako jangela, igogailu, eskailera eta kargatutako jarduerari zuzenean lotuta ez dauden gainerako elementuetara destinatutako aldeen kontzeptuan.
Ostatu jarduera denean, aurreko lerroaldeak aipatu kenketa %40koa izango da, adierazi kenketa ostatu jarduera nagusira zuzenean destinatutako metro karratuen kopuru osoaren gainean soilik aplikatuko bada ere.

Jarduera gehiago hartzeko espedientearen tramitazioko tasaren likidazioa egitean, aurreko ataletako eskalak aplikatuz kalkulatuko da kuota, jarduera zabaltzeari dagokion eremuan soilik, dagoeneko likidatu diren azalera edo azalerak aintzat hartu gabe.

Jarduera zabaltzeko espedientearen tramitazioko tasaren likidazioa denean, azalera gehitzea ez baizik eta fabrikazioa aldatu edo zabaltzea badakar, egiten diren jarduera edo instalazio aldaketak, edo produktu edo gordailu berriak direla eta dagokion espedientea tramitatu behar delarik, azalera gehitu beharrik gabe**:** 374,00 €.

Atxikitako azalerarik gabeko jarduera-lizentziak: 321,00 €.

Iragarkia argitaratzearen gastuak dagokien zenbatekoan ordainaraziko dira.

**D) EPIGRAFEA: UDAL HILERRIAK**

1.- Lehenengoz erabiltzeko batentzako nitxo-esleipen bakoitzeko: 466,94 €
2.- Lehenengoz erabiltzeko birentzako nitxo-esleipen bakoitzeko: 1.797,66 €
3.- Lehenengoz erabiltzeko batentzako nitxoa gehi hondarrentzako nitxoen esleipen bakoitzeko 1.437,89 €
4.- Hondarrentzako nitxoen esleipen bakoitzeko: 971,05 €
5.- Lurperatze, desobitze edo leku-aldatze bakoitzeko: 53,56 €
6.- Kolunbarioko emakida bakoitzeko: 376,07 €

**Tarifak aplikatzeko arauak:**
Ondorengo kasu hauetako zerbitzuentzat ez da tasa ordaindu behar izango:
1).- Onegintzen egoitzetan babesa izan dutenen ehorzketak.
2).- Arras pobreak direnen gorpuen ehorzketak.
3).- Autoritate Judizialak agindu eta hobi komunean lurperatzen diren gorpuak.

Udal hilerrien emakidak ezin eskualda daitezke, eta Udalak ez die ezer ordainduko emakida amaitu baino lehen hondarrak aldatzea erabakitzen duten senideei, salbu eta 92ko abenduaren 15a baino lehen eskuratzen badira, Hilerrien Araudi Berria indarrean sartu zen eguna baino lehen hain zuzen.
Emakida edo zerbitzu bakoitzari kitapen indibiduala eta autonomoa egingo zaio –jakinaraziko da-, zerbitzu hori eskaini edo emakida baimendu eta gero, zertarako eta diru-sarrera egiteko Kudeaketa, Bilketa eta Ikustaritzako Udal Ordenantzak dakartzan eran eta epeetan. Hala ere, 5. ataleko serbitzuei dagozkien tarifak banku-helbideratzearen bidez kobratuko dira hilabeteko epemuga igaro eta gero.

**E) EPIGRAFEA: SANEAMENDUA**

1. Saneamendua:
<u>- Etxeko erabilera.</u>
Kuota finkoa: 3,32 €
Kontsumitutako $m^3$-ko: 0,408 €

<u>- Merkataritza erabilera.</u>
Kuota finkoa: 3,32 €
Kontsumitutako $m^3$-ko: 0,490 €

<u>- Industria erabilera.</u>
a) B motako isurketa industrialak, Kolektorera egindako Isurketen Araudiaren arabera,
Kuota finkoa: 22,17 €
Isuritako $m^3$-ko: 0,842 €
b) C motako isurketei dagokienez, Kolektorera egindako Isurketen Araudiaren arabera, tarifa kalkulatzeko hurrengo formula erabiliko da:
Zenbatekoa= 22,62 €/ko kuota finkoa + isuritako $m^3$ x 0,825 €/$m^3$ + gehiegizko DQO Kg. x 0,35 € + gehiegizko ST Kg. x 0,27 € + gehiegizko N-kjendhal Kg. x 0,31 €

2.- Hartuneak:
Etxebizitza bat: 47,16 €

2-6 etxebizitza: 89,08 €
7-20 etxebizitza: 136,24 €
20 etxebizitzatik gora: 251,52 €
Merkataritzako lokala: 89,08 €
Industriak, orohar: 136,24 €

3.- Isurketa baimena:
- B motako erabiltzaileentzat, Amorebieta-Etxanoko kolektorera egindako isurketen arautegiaren arabera: 48,21 €
- C motako erabiltzaileentzat, Amorebieta-Etxanoko kolektorera egindako isurketen arautegiaren arabera: 398,92 €

**Tarifak ezartzeko arauak**
Tasa sortuko da eta zerga ordaintzeko betebeharra izango da aipatu tarifen 1, 2 eta 3. ataletan azaldutako zergapeko egitatea osatzen duen udal zerbitzu edo jarduerari hasiera ematen zaionean. Xede horietarako, zerbitzu edo jarduera hori hasitzat ulertuko da:

A).- 1 tarifa, saneamendu-zerbitzua ezarrita dagoen lekuetan, zerbitzu hori kolektorera egiten diren isurketen araudiak jasotzen duena izanik, tasa ordaindu behar duten zergapekoen helbideko kale edo lekuetan, sare nagusira hartunea egin den ala ez aintzat hartu gabe; saneamendu-sareari zuzenean zein jabetza partikularreko adarren bidez lotzeak zerbitzua ematea dakarrela ulerturik.

B).- 2. tarifa, hartuneak baimentzeko zerbitzuetan, lizentzia-eskabidea aurkeztuko den egunean.

C).- 3. Tarifa: isurketak baimentzen dituzten zerbitzuetan, kolektorera isurtzeko baimena ematen den egunean.

Tasa hauen kuotaren ordainarazpena egingo da:
A).- Hiru hilean behin, alta, baxa edo titularitate-aldaketetan kuota finkoaren hainbanaketa egunetan eginez, ur-hornidura eta zabor-bilketako tasekin batera bildu ahal izango direlarik, 1 tarifak jasotako kasuetan, C motako erabiltzaileak izan ezik; azken kasu horretan, ordaintzeko maiztasuna isurketa-baimenean ageri beharko da.

Etxeko kontsumoari dagokionez, hobariak jasotzeko HORNIDURA G) Epigrafean ezarritako baldintzak betetzen dituzten erabiltzaileei, horniduran dagokien hobariaren ehuneko berdina aplikatuko zaie saneamenduan.

B).- Banaka, 2. tarifan. Kuota egindako ekintza edo zerbitzu bakoitzeko bilduko da, eta tasa hartunea egiteko baimena ematearekin batera likidatu eta ordainduko da.

C).- Banaka, 3. tarifan. Isurketa baimena ematen den egunean likidatuko da.

1. tarifaren zenbatekoa kalkulatzeko fakturatu beharreko m3-ak udal saretik etxeko, merkataritzako eta industriako jarduerentzat banatutako hornikuntzagatik fakturatuak

izan diren ur bolumenen arabera kuantifikatuko dira, beti ere jarduera horiek ez badituzte beste hornidura iturri batzuk, C motakoak salbuetsiz.

Etxeko, merkataritzako eta industriako jarduerek baliabide propioak badituzte edo beren prozesu industrialetan lehengaitzat ur kantitate handiak erabiltzen badituzte, isurketak neurtzeko sistema bi alderdien artean adostuko da, nahitaez hauetako bat izan beharko delarik:

1).- Isuritako aldiuneko emaria neurtzen duen sistema, hileko guztizko isurketak zenbatzeko totalizatzailea barne.
2).- Kontsumitutako uraren guztizkoa neurtzen duen sistema: baliabide propioen eta udal saretik etorritakoen batura. Kasu honetan, erabiltzaileak hornidura propioko urarentzat neurgailuak jarri beharko ditu bere kontura, eta ordainagirian fakturatuko den zenbatekoa udal horniduren eta hornidura propioaren batura izango da. Baliabide propioak neurtzeko tresnak Udal Zerbitzuek zigilatuko dituzte, eta une oro haien eskura egon beharko dira.

Instalatutako neurgailuetan anomaliak edo akatsak antzemanten badira, Udalak kontsumoa balioetsi egingo du.

Industria batek kolektorera egindako isurketak, Isurketen Araudian ezarritako mugen arabera, etxeen isurketen D.Q.O., Kjendhal Nitrogenoa eta Guztizko Solidoak parametroetarako kutsadura balioak gainditzen baditu, ordainagirian gehiago fakturatuko zaio gehiegizko zama kutsakorra isurtzeagatik, tarifen taulako 2. puntuko b) atalean zehazturiko formula erabiliz. Xede horietarako, Kolektorera egindako Isurketen Araudiak etxeko kutsadurarentzat hurrengo balioak ezartzen ditu:
-D.Q.O. (oxigeno eskari kimikoa): 500mg/l.
-Guztizko Solidoak (ST): 450 mg/l.
-Kjendhal Nitrogenoa (NTK): 58 mg/l.
-Isurketa industrialaren gehiegizko D.Q.O. Kg-ak hurrengo formularen bidez kalkulatzen dira:
Gehiegizko D.Q.O. Kg-ak = $m^3$ bolumena (isurketa industrialaren D.Q.O. mg/l-500 mg/l)/1.000.
-Isurketaren gehiegizko Guztizko Solidoen Kg-ak hurrengo formularen bidez kalkulatzen dira:
Gehiegizko ST Kg. = $m^3$ bolumena isurketa industrialaren ST mg/l-450 mg/l.)/1.000.
-Isurketa industrialaren gehiegizko Kjendhal Nitrogeno kg-ak hurrengo formularen bidez kalkulatzen dira:
Gehiegizko N-Kjendhal Kg=$m^3$ bolumena (isurketa industrialaren NTK mg/l-58 mg/l)1.000.

**F) EPIGRAFEA: ZARAMA BILKETA**

| | **HIRUHILEKOKO TRIMESTRAL** | **URTEKO ANUAL** |
|---|---|---|
| 1.- Etxebizitzak, Etxebizitza eta Garajeen Jabeen Elkarteak / Viviendas, Comunidades de Vecinos y Comunidades de Garajes | 17,37 | 69,48 |

| | | |
|---|---|---|
| 2.- Gehienez 2 pertsonako familiarteko dendak / Comercio familiar hasta 2 personas | 29,14 | 116,56 |
| 3.- Gehienez 5 pertsonako industria eta tailerrak / Industrias y talleres hasta 5 personas | 44,64 | 178,57 |
| 4.- Gehienez 2 pertsonako janari alorreko dendak / Comercio ramo alimentación hasta dos personas | 39,67 | 158,66 |
| 5.- Taberna, ardotegi eta antzekoak / Bares, tabernas y similares | 66,99 | 267,96 |
| 6.- Antzokiak eta zinemak / Teatros y cines | 58,28 | 233,12 |
| 7.- Negozioetarako bulegoak, komertzialak ez diren lokalak eta antzekoak / Oficinas d enegocios, locales no comerciales y análogos | 66,99 | 267,96 |
| 8.- Klinikak eta antzekoak / Clínicas y similares | 74,40 | 297,62 |
| 9.- Industria eta tailerrak (6 eta 50 pertsona bitartekoak) / Industrias y talleres (6 a 50 personas) | 76,89 | 307,57 |
| 10.- Garajeak, ibilgailuak konpontzeko lokalak eta antzekoak / garajes, locales de reparación de vehóculos y análogos | 76,89 | 307,57 |
| 11.- Janari dendak (2 pertsona baino gehiagokoak) eta erostetxe txikiak / Comercios de alimentación (más de 2 personas) y pequeños almacenes | 162,45 | 649,78 |
| 12.- Hotel, jatetxe, ostatu, egoitza eta antzekoak / Hoteles, restaurantes, fondas, residencias y similares. | 162,45 | 649,78 |
| 13.- Banketxe, Aurrezki Kutxa eta antzekoak / Bancos, Cajas de Ahorro y similares | 188,47 | 753,90 |
| 14.- Dantzaleku, ikuskizunetarako areto, diskoteka, diskobar, kafetegi eta antzekoak / Salas de Fiesta y espectáculos, discotecas, disco-bares, cafeterías y similares. | 157,42 | 629,67 |
| 15.- 50 langiletik gorako industria eta tailerrak / Industrias y talleres de 50 trabajadores en adelante | 157,42 | 629,67 |
| 16.- Eskolak eta Ikastetxeak / Colegios y centros escolares | 157,42 | 629,67 |
| 17.- Supermerkatu, Zentro Komertzial eta erostetxe handiak / Supermercados, Centros Comerciales y grandes almacenes. | 467,48 | 1869,92 |
| 18.- Arraindegiak / Pescaderías | 29,14 | 116,56 |
| 19.- Aurreko lerrotan agertzen ez diran jarduerak / Actividades no contempladas en la relación anterior | 66,99 | 267,96 |

**Tarifak aplikatzeko arauak:**

Honakoak izango dira zergagaiak, berdin delarik udalaren kudeaketa zuzenez edo kontratista edo udalarentzat lan egiten du enpresaren bidez bada ere: etxeko zaborren derrigorrezko bilketaren zerbitzua eta etxebizitzak, bizitokiak edo lokalak dauden aldeetako edo jarduera industrial, komertzial, artistiko, profesional edo zerbitzuzkoak egiten diren aldeetako hondakin solidoak batzeko zerbitzua. Horretarako, honakoak jotzen dira etxeko zabor eta hiri-hondakintzat: jakien hondarrak edo lokal edo

etxebizitzen ohiko garbiketatiko hondakinak; eta horietatik kanpo gelditzen dira, baita tasari lotua egoteko eta ordaintzeko ere, industriako eta materialen hondarrak, obren hondakinak, giza-detrituak, materia eta material kutsatu, korrosibo, arriskutsuak edo berauen bilketak edo isurketak higienearen aldetiko neurri bereziak (profilaktikoak edo segurtasunekoak) eskatzen dituztenak, baita eguneko hustuketa 240 kilogramoakoa baino handiagokoa denean ere. Beren beregi ezartzen da arrandegietako edo arrandegia duen establezimenduko berezko hondakinak biltzea edo isurtzea, neurri higieniko bereziak eskatzen dituenez. Hori dela-eta, establezimendu horiek kudeatu behar dute era horretako hondakin-mota jakin horien bilketa.

Udalak zerbitzua nahitaez eman behar duenean, arau orokorra edo Udal Araudi eta Ordenantzen xedapenak betetzeko, tasaren sortzapena sortuko da interesatuek zerbitzu horiek ematea eragiten ez badute ere. Gainontzekoak borondatezkoak dira eta horien eskaria ez du Udalak egin behar. Nahitaezkotzat jotzen dira honako hauen zabor bilketaren zerbitzuak: etxebizitza, ostatu, hotel, tanatorio, hospital, ikastetxe, egoitza, aterpetxe, bulego, baita industriako, merkataritzako edo zerbitzuetako jarduerak egiten diren lokalena ere.

Tasa sortuko da eta zerga ordaindu beharra dago, zerbitzua nahitaez jaso behar baita; zerbitzua udalerri osoan ematen dela ulertzen da erabiltzaile horrek udal erroldan alta ematen duen unean.

Aurreko paragrafoan erabakitakoaren salbuespen gisa, eskatzailearen eskariz eginiko borondatezko zerbitzuei dagokienean, zerbitzuaren baimenaz batera sortuko da ordaindu beharra, emandako zerbitzuaren benetako kostuaren 100eko 100en berdina dena eta tasa sortuko delarik, beti ere udal zerbitzuek kostuei buruz egindako balorazioaren arabera.

Zerbitzuak emateagatiko tasak hiru hilean behin ordaintzen dira eta tasen hainbanaketa egiten da zerbitzuan alta edo baxa ematen duten egunaren arabera. Tasa sortzen da zerbitzua erabiltzen hasten deneko hiruhilabetearen lehenengo egunean. Alta, baja eta titularitate-aldaketek eskatzen diren egunean sortzen dituzten ondoreak. Zerbitzu hau ematearren kobratu behar den kuota hiruhilabetero kobratuko da, ur hornidura eta sabneamenduko zerbitzuari dagozkion kuotekin batera.

Tasa lehenengoz sortzen den egunetik hasita ondorengo hogeita hamar lanegunen buruan, subjektu pasiboek edo ordezkoek aurkezturiko Errolderatuak emango dute izena, eta dagokion altaren adierazpena aurkeztuko dute.

Ofizioz edo interesatuen jakinarazpenaz erroldaren edozein aldaketaren berri dagoenean, dagozkion aldaketak egingo dira bertan, eta ondorioak sortuko dituzte adierazpena eginiko egunean edo Udalak horren berri duenean hasten den kobrantza aldi berean.

## G) EPIGRAFEA: HORNIDURA

1. – Hornidura:

- Etxeko erabilera:
Kuota finkoa: 3,26 €
60 $m^3$-ra arteko kontsumoa: 0,417 €/$m^3$
60 $m^3$-tik gorako kontsumoa: 0,417 €/$m^3$
- Merkataritza erabilera:
Kuota finkoa: 3,26 €
50 $m^3$-ra arteko kontsumoa: 0,543 €/$m^3$
51 eta 250 $m^3$ bitarteko kontsumoa: 1,031 €/$m^3$
250 $m^3$-tik gorako kontsumoa: 1,249 €/$m^3$
- Industria erabilera:
Kuota finkoa: 21,76 €
1.000 $m^3$-ra arteko kontsumoa: 1,249 €/$m^3$
1.000 $m^3$-tik gorako kontsumoaga: 1,359 €/$m^3$

2. - Hartuneak:
- Etxebizitza bat: 46,31 €
- 2-6 etxebizitza: 87,47 €
- 7-20 etxebizitza: 133,77 €
- 20 etxebizitzatik gora: 246,96 €
- Merkataritzako lokala: 87,47 €
- Industriak, oro har: 133,77 €

3.- Alta udal erroldan:
- Oro har: 46,31 €
- Titularitate-aldaketak: 46,31 €

**Tarifak ezartzeko arauak:**
Aipatu zenbatekoek ez dute Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne hartzen.
